

Erref.: FMR / Legelari aholkularia

GAIA.- ZUBIETE LAGUNTZA-ZENTROKO ZUZENDARITZAKO EGINKIZUNAK LUSA LAGUNTZA-ZENTROKO ZUZENDARI-POSTUARI ETA HAREN TITULARRA DEN GIMENO LÓPEZ ANDREARI ESLEITZEA.

EGITATEAK.- Hizpide dugun zuzendari-postuaren titularra jubilatzean, beharrezkoa gertatu zen beste lanpostu batera berresleitzea aipatutako laguntza-zentroko zuzendaritzak berezkoak dituen zeregin eta ardura batzuk, hala berma zedin zerbitzua etenik gabe emango zela, gutxienez oinarrizko alderdi administratiboei dagokienez.

Denbora igarota, ikusi da bermatu behar direla, oinarrizko eginkizun horiek ez ezik, estrategikoak direnak eta planifikazioari dagozkionak ere, era egonkorragoan orain, eta, horretarako, esleitu behar zaizkiola Erakundearen barruan izaera eta maila egokia duen pertsona bati.

Modu horretan planteatzen da esparru bereko Dibisioaren beste laguntza-zentroko zuzendaritzari egokitzea orain eginkizun-esleipen hori. Hala, Lusa laguntza-zentroa da, geografikoki hurbil egoteagatik, helburu horretarako egokiena.

Horiek horrela, erabakitzen ez den bitartean postua arau bidez betetzea edota bestelako kudeaketa-alternatiba bat gauzatzea, hala nola idazki honetatik ondorioztatzen dena, honen bidez xedatzen da, zentzuzko eta egoki delakoan, Zubiete laguntza-zentroko zuzendaritzaren berezko zeregin eta arduren eginkizunak esleitzea Lusako zentroko zuzendaritzari eta haren oraingo okupatzaileari, Itziar Gimeno López andreari, zeinak, esan gabe doa, antzeko arduetan eskarmentu handia izateaz gain, adierazi baitu bat datorrela proposamenarekin.

ARRAZOIBIDEAK.- Halako ardura betetzeko esleipena guztiz bateragarria da Estaturen 2018rako Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legetik eratortzen diren muga legalekin. Lege horrek eta haren 2020rako gerorapenak pertsonaleko kontratazio berriak mugatu izan dituzte, hurrenez hurren, haiek berek aurreikusten dituzten egoera berezietara. Hori hala izanik, Foru Erakunde honen garapen-araudiak, alegia, GUFEn gerentearen 2015eko martxoaren 11ko Ebazpenak, zeinak hizpide baititu abenduaren 30eko 20/2011 Legegintzako Errege Dekretua argitaratzean egondako langile-ordezpenak (Dekretu horrek aurrekontu, tributu eta finantzen arloko presazko neurriak hartzen ditu, defizit publikoa zuzentzeko), hau ezartzen du laugarren apartatuan: *«Postu singularrak, hala nola zuzendaritzari edo aginteari dagozkionak, izaera berbera duten beste figura batzuei eginkizunak esleitzuz bete ahalko dira. Salbuespen gisa, lanpostu instrumentalak eta/edo administrazio izaerakoak, kide bakarrekoak, salbuespena gera daitezke, behar bezala arrazoituta, eginkizunen berresleipenaren bitartez bete ezin daitezkeenean».*



ARRAZOIBIDEAK.- GUFEn gerente andreari dagokio gai honen gainean erabakitzeke eskumena, hala ezartzen baitu 9. artikuluan maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauak, Erakunde honen Estatutuak aldatzeari buruzkoak. Beraz, hona hemen hark, azaldutakoarekin bat etorrira, ematen duen

EBAZPENA

Lehena.- Xedatzen da Zubiete laguntza-zentroko zuzendaritzako eginkizunak esleitzea Lusa laguntza-zentroko zuzendari-postuari eta haren titularraren den Itziar Gimeno López andreari. Hala, aurrerantzean, postu batari zein besteari dagozkien eginkizunak izango ditu.

Bigarrena.- Ebazpen honek gaurdanik izango ditu ondorioak, harik eta xedatzen den arte hizpide dugun postua betetzea eta/edo alternatiba bat gauzatzea eta, beharren arabera, zeregin horien esleipena kentzea.

Hirugarrena.- Interesdunari Ebazpen hau jakinaraztea, bai eta aurretiko txostena ere, zeinak Ebazpena arrazoitzeko balio izan baitu, jarraibide harturik 35. eta 88. artikuluetan xedatzen duena urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak.

Laugarrena.- Honen berri ematea Desgaitasuna duten Pertsonentzako eta Gizarteratzeko Zerbitzuen Dibisioko Burutzari, Pertsonak Zuzentzeko Departamentuko buruari, Zerbitzu Orokorren Departamentuko buruari eta Zentroen eta Zerbitzuen Zuzendaritzari.

Bosgarrena.- Ebazpen hau zentral sindikalei jakinaraziko zaie, eta Erakundearen iragarki-oholean eta intranetean argitaratuko da. Bete bedi.

Bilbon, 2020ko urriaren 1ean

GUFE-REN GERENTEA

Sin./Fdo.: Nerea Urien Azpitarte